
BARREIX
Pierre Barreix. curé de Licharre
—
Traduction de l'Evangile



E
vau
gite
P.
Ba
rrèx


CAHIER SPHERE
S.F.N.G.R.
Cahier de
à

IV.- Esku eihartia.- Jesusen hountarzuna.- Mirakuillu andana bat.
S. Math., XII, 15-29; S. Luc, VI, 6-11; S. Marc, III, 7-12.

Sabatoko beste egun batez, Jesusek ubzirik eskualde horik, sarthu zen synagoga batian phoredikatzen aritzeko eta han atzeman zian gizon bat esku eskuiña eihartuik. Skribak eta Pharisauak haiduru ziren ikhousteko eia Jesusek sabatoko egunian gizon houra sendotuko zianez, gero haren akusatzeko. Jesusek ezagutzen beitzutian hen gogouetak, erraiten deio esku hila zian gizonari: Jeiki hadi eta ago chutik bilkhurraren erdian. Judiouak oldartzen zeitzolarik hasi zeitzon erraiten: Haizu deia sabatoko egunetan eri baten sendotzia? Jesusek ihardetsi zeien: Nik ere zier galthatzen deiziet zouintarik, ala hounki ala gaizki egitia haizu den sabatoko egunetan? ala gizon baten salbatzia, ala gal eraztia haizu den? Nour da zietarik agitzen bazaio ardi

baten zilo batetara erortia, jouanen
eztena sabatoko egunian haren jelkhitzera?
Eta hatik zoumbatenaz eztu gizonak
balio haboro eziez ardi batek? Haizu da
arren hounkiaren egitia sabatoko egunetan.
Eta so egiten deielarik Khechu bateki,
zertako zen hen utsumentiaz hounkirik,
erraiten du gizonari: Heda ezak hire
eskia. Hedatzen du eta haren eskia
sendoturik izan zen.

Pharisauak egitate horrek bere beitharik
jelkherazten tu, eta algarri galthatzera
ziren zer Jesusez egin behar zien. Jouaiten
ere badira laster eta Herodestiarreki
igaraiten noula egin behar zien Jesusen
galtzeko.

Bena Jesusek horien jakitiareki jelkhitzen
da lekhu hetarik eta jiten bere dizipulieki
itchasondouala, nouraino laguntu
beitzian Galileako eta Judeako jente asko
handi batek. Jiten zeitzon ere saldoka
Jerusalemetik eta Idumeatik, Jourdainaren
haraintitik bai eta Tyr eta Sidoneko

aldetarik, jakitiareki zer mirakuillu
egiten zian.

Lotsaz arren jente saldo houra eror
lekion gaña, errraiten du dizipulier ountzi
bat huillant eta adela diezen. Ezi sendotzen
beitzian harengana zinetarik hanits,
zerbait eritarzun zienak oro ziten zeitzon
gaña haren haunkitzeko abantaillaren
ukheiteko. Izpiritu theiak, ikhousten
zienian luherrasten ziren, eta oihu egiten:
Zu zirade Jinkouaren Semia. Bena
manhatzen zeien menazu handireki elezen
agert nour zen; halaber egiten zian
sendotu zutian eri guzieki. Holaz bethatzen
zian Isaïa profetaren errana: Houna ene
Semia, nihaourek haitatu dudana, nik
maitenik dudana, zointan ene arimak
boztariorik handienak edireiten beitutu.
Horren beithan ezarriko dut ene Izpiritia,
eta ezagut erarziko du justizia nazioner.
Ezta debadiorik izanen, eztu herotsik
eginen, eta ihourk ere lekhu publikouetan
eztu haren botza entzunen. Eztu urhentuko

Kanabera erdi haoutsia ez eta osoki hilen mitcha khe izpi baten emailia. Iginen du justizia izan dadin orotan ezagutia eta pratikatia, eta Nazionek orotek haren izena beithan esparantcha hartutko die.

Hobekienik legiari etcheki zirenek berek, obra Jesusek aiphatiak eta besterik ere egiten zutien; Pharisauak aldiz zertan nahi estakuria atzemaitera zirен Jesusen akusatzeko.

JelosKeriak, geroago eta handiago jouanez, ekharri zutian Jesusen etsaiak haren hil eraztera. Igun ere hanits gizon Irrelijione gabekok eztie beste arrazourik Elizaren huguntzeko jelosKeria baizik eta haren ezin ikhousia baizik mundiari hounki egiten.

Herodestiarrek etzien beste nahirik, Herrodes sustengi eta haren erregegoua azkartu baizik; aldiz bazen beste pharte bat haren eskupetik jelKhitzia baizik cherKhatzen etzienik.

Idumea, Tyr eta Sidon zirен herrialde

elibat Judeatik huillan zirenak; Salbazaliaren fama handia aisa hetara hedatu zen.

Ikhousteko da zer isiareki debriek nahi dien Jesusen Jinkotarzuna oihustatu. Gaistouek ber gisala hartzen dutie berthuten uduriak lagunen aisago trounpatzeko.

Jesusek alde orotan pheredikatu izan du bere dotrina, bai eta ere plaza publikouetan. Egitate horrek erakousten du aphezer elizatik jelkhitzen eta arimen ondotik, noun nahi izan ditian, jouaiten. Hargatik etzen Jesus bekhan baizik lurreko gaizez okupatzen. Egiazko etsenplu bat da Ebanjeliouaren pheredikatzeko kargia ukhen dien ororentzat, ezi erraiten die, arimak noun ere beitira, han izan ditian elizako ministrouak.

Salbazalia eta haren dizipuliak ezinago houn dira bekhatorentzat. Bekhatoriak, kanabera erdi haoutse

hourak beitira, eztutu urhentzen; mitcha erdi bizi hourak beitira, eztutie osoki hiltzen; eztie Jesusen Izpiritia, nourk ere nahi beilututie bekhatoriak oro hil erazi, zeren hen arabera, eztiren khanbiatzen ahal, hounialat arra utzultzen ahal. Aldiz erran behar dena da bekhatoriak halako direla, zeren flaku diren, zeren ideia faltsuz ezpiritia betherik dien, zeren gaizki eraikirik izan diren, edo ere zeren galbidetan, okasionetan agitu diren. Ebanjelioko erakouspen ezti eta amodiotsiek egin ahal diroie hen bide hounetara jin eraztia; gutarik bakhotcha bere egin ahal oroz iseia dadila erakouspen horien hen beharrietara hel eraztera.

V.– Hamabi apostolien haitatzia.–
S. Math, X, 2-4; S. Marc, III, 13-19; S. Luc VI, 12-16

Heltu zen egun hetan Jesusen jente saldotik hurruntzia eta bortu ondo baletara jouaitia, han otboitzian aritzeko. Igaran zian gaia oro jinkouareki elhestan. Egu-na jin zenian, dizipulietarik nahi

zutianak deithu zutian eta jin zeitzon. Hen artian haitatu zutian hamabi phe-redikatzera igortetko. Apostolu izena eman zeien, bai eta ere behar zutien photeriak erien sendotzetko eta debrien ohiltzetko.

Hounа hamabi Apostolien izenak: lehena Simon deithurik dena Phetiri, Andre haren anaia, Jacques Zebederena eta Johane haren anaia, zoini eman beitzeien Boanerges izen gaintikoua, erran nahi beita ihulgiaren semiak: Philippe eta Barthelemy, Thomas eta Mathieu publikanoua, Jacques Alphee-ren semia, Jude deithia orano Thadee, Simon Cana-koua deithia sustatia, eta Judas Iskariota gerouan traditu behar ziana.

Apostolien haitatze hortan ikhous dezagun Jesusek hartu zutiala auntsa jiten zeitzonak, bokazionia delakoz jinkouaren aldetik dohain bat ihouri zor eztiana; ikhous dezagun orano noula lan handi hortara adelatu zen, gaia oso osoua othoitzian igaraitez. — Alphezen

eta Aphezkupien saintu izatiak aban-
tailla handiak dutu Elizarentzat bai eta
arimentzat ; fidel guziek arren bekar
lukie othoitze egiten dien beno haboro hel
erazi Jinkoari aphez gartsien galthatzeko,
partikulazki ordinazioniak izaten diren
egunetan. Othoitzia hain da balious noun
Jesusek berak emaiten beiteiku etsenplia.

Apostolu hitz horrek erran naki du
«igorririk». Apostoliak igorririk dirade phe-
rediKatzera eta Jesusek bezala ukhenen tie
mirakuilien egiteko photeriak bereu er-
ranetan sinhetsirik izateko.

Simon edo Phetiriren lehen izatia Je-
susek hanits lekhutan ezagut erazten deiku
orai heben egiten dian bezala.

Salbazaliak deithu zutian Johane eta
Jacques ihulgiaren semiak, zeren, egun
batez, khechaturik, ~~galthatzen zion hen~~
~~hil eraztia~~ Judio sinhetsi naki etzien
elibaten kountre, galthatzen zien hen
hil eraztia, arauz zeluko suiaren gaña
igortez. Etzien hortan segitzen Jesusen

eztitarzuna.

VI. — Bortu gañeko pheredikia. — S. Math. V; S. Luc VI.

Jesus ordian eraitsi zen hekilaw eta baratu ordoki belhartsu batetan. Bereki zutian dizipulien saldoua, bai eta gizon andana handi bat jinik zirenak Judeatik, Jerusalemerik, itchaso ungurunetarik, Tyr eta Sidonerik haren entzutera eta bere minetarik sendotu nahiz haren behartzera. Sendotu zutian, bai ere behar-gabez thurmentatiak soltatu izpiritu thetien esteketarik. Jentek cherkhatzen zien haren hounkitzia, zeren haren ganik berthute bat jelkhitzen zen oro sendotzen zutiana.

Khousirik jente oste houra, Jesus igaran zen gune gorachago batetara eta han jarri zenian, dizipuliak huillantu zeitzon. Her buruz zagoelarik, ahoua zabaltu zian eta, hen jakintsuntzeko, gisa hountara mintzatu zen:

A. — Frousitatiak.

(21)

Jrous izpirituz praoube direnak, hentako beitate zeluko erresouma ; Jrous ezti direnak, hentako beitate Lurra ; Jrous nigarretan direnak, kontsolaturik izanen beitira ; Jrous justiziaren gose eta egarri direnak, izanen beitira asesiaturik ; Jrous laño edo miserikordious direnak, berer eginik izanen beitzaie miserikordia ; Jrous bihotzez garbi direnak, Jinkoua ikhousiko beitie ; Jrous bakezko gizonak, deithurik beitirate Jinkouaren haourrak ; Jrous persekutaturik edo gaizki erabilirik direnak justo direlakoz, zeren zeluko erresouma hentzat beitate ; Jrous ziek praoube ziradenak, zeren zeluko erresouma zientzat beita ; Jrous ziek oro gosez ziradenak, ezi aserik izanen zideie ; Jrous ziek nigarretan ziradenak, ezi boztariotan ere izanen zideie ; Jrous ziratekе nouiz eta ere gizonek maradikaturen beitzutie, persekutaturen beitzutie, nouiz eta beren bilkhurretarik igorriko beitzutie, goitzarrenez bethatzen zutielarik eta zien

izena zankha petan emaiten Gizonaren Semia dela Kaousa; irous ziratekе nouiz eta ere gezurrez zer nahi zien Kountre erranen beitie ni nizala Kaousa. Botz ziteie eta alagera zeren zien saria zelian handi beita. Ber gisala persekutatu edo gaizki erabili tie zien aitzinetik izan diren profetak. Dizipulia ezta Buruzagia beno haboro; nour ere beitate Buruzagia uduri, houra perfeit date.

(1.) Heben berheziki atzemaiten tugu Jesusek zozietatiaren eretzian eman deizkun erakouspenak; heben erraiten deiku noula behar tugun sendotu zozietatia beithan diren minak eta gaizkiak. Spartacus Erroumako esklabo beleratz batek, nahiz esklabotarzuna ezeztatu, lau ehun mila esklabo buruzagien Kountre bildu zutian, eta ez erreusitu bere estatu esteiariaren sordeitzia baizik. Jesus hasten da lehenik arima bakhotchian ideien eta sendimentien Khambiatzen, eta gero, arima bakhotcharen hountzez, zozietatiaren

hobetzen. Haren gogoua da lurreko hounek behar diela izan berthutiaren eta saintu-tarzunaren ondoris bat bezala. Jesusen phérediku hori behar bezala harturik balitz, eta pratikan emanik, zer khambioua elizate hounialat! eta khambio hori bakian eginen balitz, ondoriorik hoberenak eta iraipousenak balutuke. Goure zozialisteк eginen die Spartacus-eк bezala, bena ere, harek bezala bide okherra hartzen. « La question sociale » deitzen duguna jadanik behin Jesuseк bide houinian ezari du; ber erakouspenez arra ezar ahal lezake, nahi bagintu hourak jarraiki.

(2) Egiazki izpirituz praubiak dira bihotzak aberastarzunetarik soltaturik dutienak, hen ukhen beharrez aihorik eztienak, edo, hourak ukhenik, behar bezala eta bihotz largo bateki zerbutchatzen tienak. Hek egiazki badie praubeziaren izpiritia edo nahia. — « Zeluko erresouma hentzat da », horrek erran nahi du, praubiak ekhar-

zirik beitira sakrifizioz, nekez eta lanez bizitzera, disposizionerik hoberenetan direla Ebanjelioaren erakaspenen hartzeko, Elizaren haur izateko eta sari eder baten zelian ukheiteko. Abeatsak aldiz, munduko abantailler eta aisentzier josirik direlakoz, gutiesten tie zeluko gaizak eta hen ukheiteko ardietsi behar lukien grazia.

Izti direnak houn dira bere lagunentzat. Jesusek kondenatzen tu houra jin beno lehen gizonek egiten zutien indarrak lagunen eskupian etchekitzeko. Iztitarzuna edo houn izatia da bihotzen atzemaiteko eta hetan buruzagigoua iraipous baten hartzeko bide segurra.

Jesusek nahi du nigar egin dezagun; nahi du nigarrak maitha ditzagun, zeren gutien salbazalia uduri egiten, zeren deizkien bekhatiak erreparatzen eta zelia ukhen erazten.

Gizonak berartarik lurreko hountarzunen gose dira, eta aldiz behar guntuke goure aihorik handienak

ukhen arimako eta eternitateko abantaillentzat. Jesusek hitzemaiten du aiko horien manera berhezi batez asetzia.

MisericKordiak eKharten gutu ogen egin deikiener pharkatzera; Kondenatzen dutu Kolera, haina, mendeKizko aiherKuntia, goure bihotzetan hain ediren chi diren sendimentiak. Ez ahatz JinKouak tratatuko gutiala, noula ere bestiak tratatu beitutuKegu.

LohiKeria zen mundian haborenik desordre egin zian bizioua; Jesusek galthatzen du bai bihotzeko, bai Khorpitzeko garbitarzun osoua. Houra gabe eztio gizonak houn har Ebanjelioaren eraKaspena, ez eta ere zelan JinKoua iKhous.

BakerZko gizonak bihotz houneKouak dira. Eztie cherKhatzen gaizen chuchentzia baizik, bakiaren ororen artian ezartia baizik. Bena ere zertako algarrez beKhaits izan, zertako algarri eskernio egin, girenaz gañen oro ber familiaKouak

ber Jinkouaren haurrak.

Sofritzia Jinkouarentzat, justiziarentzat, errelijioniarentzat bihotz handien beztariova da, maneriarik hoberena ere bai Jinkouari goure amoriouaren erakousteko.

Zortzi orai aiphatu irousitatiak dira Khristi bizi molde hounaren gouri ezagut erazliak. Eztutu mundiak gutiziatzen zeren aberatstarzunen, atseginen eta ouhouren ondotik bethi dabilan; bena ere bistan da egia eztela mundiaren bena bai Jesusen erranetan; eta zuhurtzia bera denaren erakaspenen arabera behar dugula goure bizia adelatu.

S. Agostik dio, ezkutiala sofritzen den miñak egiten irous, bena bai gogo hounez eta Jinkouaren loriatako sofritziak.

B. Maraditzioniak.

Bena zorigaitz zier aberatser, zihaurien beithan tuzielakoz kontsolazioniak; zorigaitz aserik ziradener, zeren

gosia beitukezie ; zorigaitz erriz ari ziradener, zeren eta tristezian eta nigarretan izanen beitzirade ; zorigaitz zier, gizonek lausenkuz betheren zutienian : hala hala hen aitek egiten zien profeta faltsier.

Aberatsek, zertako dutien atsegin handiak mundu hountan, sobera esteka ditazke lurreko gaizer, eta halaz saihetsialat utz Jinkoua eta berthutia. Galtze handia da hentzat, zeren ezinago praube diren arinan, ezinago praube izanen eternitatian. Igun gizonek erakasten diena da, behar dela aberastarzuna emendatu eta hel erazi populu chehiala, haren irous egiteko. Holako erakaspena ezta egiazkoua, ezi mundu hountan den minik handiena da berkhoi izatia, eta bizio hori beste hanitseki ; hala noula bekhaisteria, haina, mendekioua, ohoinkeria, injustizia eta flakien zankhapetan ezartia, haztea eta handitzen tu abe-

rastarzunen gutiziak eta ukheitiak. Jesusen eraKaspena hanitchez hobe dela ikhous dirogu zortzi irousitaten gogouan igaraitez.

Mundiak ounhesten bagutu, lotsa izan gitian gaizki ari girela; aldiz gaitzesten eta Kondenatzen bagutu ountsaren egitian, segur bezala izan gitian bide hounian girela.

Profeta faltsiak izan dira bethi ountsa ikhousirik, aldiz egiazkouak bethi gaizki erabilirik eta hil erazirik. - Espraben artian, zer ezti den Salbazaharen erranen gogouan igaraitia eta phentsatzia bizi han deusere ezteta, eternitatian injustiziak oro bardinturik diratekiala.

C. Etsenplu hounaz.

Zurreko gatza zideie. Gatzak galtzen badu bere indarra, zertaz gazitutko da? Indarrik gabeko gatza ezta houn ourthouketako baizik eta gizonen zankho petan emaiteko. Mundutko argia zideie. Bortuan gagnen emanik den hiria ezin deite gorderik egon. Ezta phizten lampa bat gaitzuru pian emaiteko, bena bai khandeler baten gagnen

ezarteko, gisa horrez argi ditzan etchian
direnak oro. Zien argiak arren hain ountza
argi dezala noun gizonek ikhousiko beitutie
zien obra hounak eta hortzaz beraz laidatuko
zien Aita zelietan dena. Ez tezaziela ouste
ukhen jin nizala Legiaren edo Profeten
ezeztatzera; eniz jin hen ezeztatzera, bena
bai hen erakaspenen oso egitera. Izi egiaz
erraiten deizuet zelia eta lurra eztirela
igaranen noun ezten izaten Legia oro
betherik, iota bat edo phunturik tchipiena
ahatzerik izan gabe. Nourk ere erakaspen
horietarik tchipienari huts eginen beitu,
edo huts egiten besteri erakoutsiko, houra
izanen da azkena zeluko erresouman.
Bena nourk ere Legia begiratuko beitu eta
begiratzen erakoutsiko, houra handi date
zeluko erresouman.

Gatzak jankariari gozo houna
emaiten du eta aragiak gastatzetik
begiratzen. Hala hala egin behar die
Khristiek, lagunak gastatzetik begiratu
bere erakaspenez eta bizi moulde hounaz.

Aphezek saintu eta jakintsun izan behar die besten garbitzeko eta argitzeko, bena behar die mundiareki ere arrolatu, guziek dielakoz hen zerbutchien beharra. Hen egon erazi nahi ukheitia elizan edo aphez etchian. Salbazaliaren nahiem kountre jouaitia da, bekhatoretarik guti direlakoz elizalat jiten.

Irrelijione berria ezta deus besterik zaharra perfetzionaturik baizik. Jesusen beithan bethe dira Profeten erranak haren jitiaz. Salbazaliak aldiz, Eliza establitzez, Profeten erakaspener hedadura osoua eman du.

Legiaren hausle edo hausten erakaslia azkena date Elizan, eta kanpo emanik izan ahal daite. Eskandalak bakhotcharen bekhatiak orano handiago eguten dutu.

Ezinago handi den bekhatia da gaizkiaren erakoustia, ezinago handi den merechimentia aldiz ountsaren erakoustia. Eta hatik hamitchi aski zaie berek ountsaren egitia bester egin eraztia cherkhatu gabe. Ezta hullanik ere haim ountsa.

Egin ahala egin dezagun Frantziaren

baratzeko beste nazioner eskandal emaitetik.
Jinkouari goitzarren egiten erakousten du
gehienik bere libriez eta bere kaseta gaistoez.
Utzul dadila errelijioniaren erakaspenetara
eta bere ahalak ezar ditzala ountsaren eta
egiaren mundu orotan hedatzen. Hortako
da mundian ezaririk.

D. Khechien eta herren saihetsialat urtiaz.
Irraiten deiziet, ezpada zien justizia Scriba
eta Farisienena beno nasaiago, etzidea
zeluko erresouman sarthuko. Ikhasi duzie
erranik izan dela zien aitzinekouer: Iztuzie
hilen, ezi bere laguna hiltzen diana juyamentiala
eramanik izanen da. Eta nik erraiten
deiziet: nour ere bere anaiari khechatuko
beita arrazou haunik gabe, juyamentiala
eramanik izanen dela; nourk ere erranen
beitu anaiari Raca, Kontsellian igaranen
dela; aldiz nourk ere erranen beitio Ertzoua,
houra Jehenako suiaz gaztigaturik dakkiak.
Arren jouaiten bazira oberenda baten
eramaitera althariala eta orhitzen zoure
anaiak arrankura zerbait badiala zoure

eretzian, utz ezazu han althariaren aitzinian
zoure oberenda eta ediren zoure anaia, hareki
bakhe zite eta gero, utzultzen zirelarik, eskentuko
duzu zoure oberenda.

Ahalik sarriena, bai eta behar bada bidian
zabilalarik, bakhe zite zoure etsaiareki, oraman
etzitzan Jujia gana eta Jujiak etzitzan ezar
bere zerbutchariaren eskietan presountegialat
ourthoukitekho. Igiaz erraiten deizut, etzirade
hantik jelkhiko azken kornadoua phakatu
artino.

Jesusek etsenplu zombaitez erakousten
du noula Farisauek etzien berthute osoua
pratikatzen, Khristiek egin behar dien bezala.
Izta behar choilki gizon chaitetik begiratu,
bena orano kolera justo eztiren orotarik.

Zoure lagunari zor dugun amoriouari
huts egitia gaizki da, hari Raca edo erbzoua
erraitia gaztigaturik dateke eta hitz horik
mesperetchureki eta aphaltzeko govzouareki
erranik badira, damnazionezko estatian
ezarten die ogenduna. — Bazutien Judiouek
hirour tribunal: bata hirour jujeki zagouen

herri tchipien sargiaw; bigerrena hogei eta hirour jujeki, jujamentia deithurik zena, hiri handi ororen sargiaw zagouen; eta hirourgerrena hirouretaw hogei eta hamabieki deithia zen Kontsellia edo Sanhedreña.

Ororen alde gagnetik manhaturik da Ebanjeliouan protsimo lagunaren amorioua. Bestalde eztaute Jinkoua egiazki maitha, laguna maithatu gabe.

Zer ere heltzen beita gizonen tribunaletan, ber gaiza gerthatzen da Jinkouarenian. Heriosik atzemaiten bagutu bekhatian, segur da gartigaturik giratekiala edo Purgatorioan edo Ifernian.

E. Chahutarzunaz. — Galbider ihes egitiaz. — Ezkountziaren ezin haustiaz.

Entzun duzie erranik izan dela zien aitzinekouer: Eztuzie adulteriorik eginew. Nik aldiz errraiten deiziet: Nourbaitek so egiten badu besterew emaztiari haren gutiziatzeko, jadanik adulterioua bihotzian egin du. Zoure begi eskuñak eskandal emaiten badeizu, idok ezazu eta hurrum

ourthouk, ezi hobe da zoure menbretarik baten galtzia eziez zihauren oso osoua Jehenalat edo Ifernietarat ourthoukirik izatia. Eta zoure esku eskuñak eskandalisatzen edo bekhatiala eror erazten bazutu, moutz elzazu eta hurrun ourthouk, ezi hobe da zouretzat menbre baten galtzia eziez khorpitzaren oso osoua ifernietarat ourthoukirik ukheitia.

Erranik izan da ere: Emaztia igorten dianak eman dizola igorten dialako deklarazionia; eta nik erraiten deiziet: Emaztia igorten dianak, adulteriozko kasiaz kanpo, adulterio egin erazten deiola eta emazte houra hartzen dianak ere ber bekhatia egiten diala.

Chahutarzuna da berthute bat khiristiek Judiouek beno hobeki pratikatu behar diena. Ezkutie berbera obra theiek Jinkouaren aitzinian ogendun ezarten bena ere gogoueta eta nahikunte bere nahizkouek.

Horrek erran nahi du behar dugula

beKhatuzko bidetarik edo oKasionetarik berhala baztertu. Nourbait ukheiten ahal dugu goure begia edo eskia bezain maite, bena beKhatiala eKharten bagutu, behar dugu saihetsialat utzi denborarik galdu gabe. Ardi errekaKhaia, orai edo sarri errekaK beretzen du.

Judiouek diborsaz usaje egiten zien, bena Jesusek egitate hori kondenatzen du. EzKountietarik bata leial ezteiarik, haizu da Khorpitzez algarganik berbeztia, bena berbezte horiek ez tu sekula hausten ezKountziaren esteka, ez eta ere haizu egiten beste lagun baten hartzia lehena bizi deno. Khristiak zor du judiouak beno hobeki berthutiaren pratikatzia, dialakoz argi eta lagungoua nasaiagorik ukhen.

F. - Zin faltsiaz.

IKhasi duzie orano goure aitzinekouer erranik izan dela: Eztitzatziela zinak hauts, bena bai leialki begira Jinkouari. Eta nik erraiten deiziet: Ezteraziela zinik batere egin, ez Zehaz zeren Jinkouaren

tronoua edo egongia den; ez lurraz, zeren haren zankhouen phausatzeko hokia den; ez eta ere Jerusalemez, zeren Errege handiaren Hiria den. Eztezaziela ere zinik egin zien buriaz, zeren ezpeitzideie bilho baten chouri edo beltz egiteko ahaletan. Zien elhia izan dadila: Bai, bai, ez, ez; ezi horietarik gaineratikoua gaizkitik houna da.

1.– Ouste ukheiteko da Judiouek ardura zin egiten ziela bai zeliaz, bai lurraz, bai Jerusalemez. Jesus-Kristek gaitzesten du mintzaje hori. Goure elhia bethi izan dadila bakhoun eta zinik eztadila goure ahotik jalkhi gaiza handi eta osoki beharrezkouetan baizik.

G Etsaien maithatziaz. – Amouinaz.

Ikhasi izan duzie erranik izan dela: Begia begiarentzat, hortza hortzarentzat. Eta nik erraiten deiziet etziteien buhurt gaistouari. Bena nourbaitek joiten bazutie eskuineko

machelan, esKent ezozu orano esKerreKoa.
Nourbaitek jinjiaren aitziniala deithu
nahi bazutu soineKoaren idoKiteko, eman
ezozu ere zoure kapa. Nourbaitek bortchatu
nahi bazutu mila urhatsen egitera, egin
ezozu orano beste mila. Eman ezazie
galthatzen deizienari, eta etziteiela gorda
zerbaiten jesaitera heltu zaizienari.
Hala hala, hartu deiziena ez gibel utzul
eraz.

Egin ezazie besteri zer ere nahi beitzu-
nuke bestek egin dezazien. Ez Kondena
bestiak eta bestek etzutie Kondenatuko.
Pharka ezazie eta pharkatuko deizie.
Emazie eta emanen deizie. Ukhenen
duzie izaria betherik, ikarrausirik,
ourtsa zaphaturik eta gaintika, ezi
emanik zaikezie zihauriek bester egin
dukezien izariaw. Badakizie erranik
izan dela: Maithatuko duzu zoure
laguna eta zoure etsaia hastiatuko.
Bena nik erraiten deiziet: Maitha
itzatzie zien etsaiak, thoumki egizie zien

gaizki tratazaler eta gezurrez gal erazi nahi zutiener. Gisa horrez izanen zideie zelietan den aitaren haurrak zoinek jeik erazten beitu bere ekhia hain ountsa gaistoaren noula hounaren gaiña, ebia eraits erazten, jistoaren-bezala, bekhatoriaren gaiña.

Izpaturie maite zihaurick maite turzienak baizik, zer merechimentu duzie eta zer sari naki duzie eman dakizien? Publikanoek ere eztieia hola hola egiten! Bekhatorek ere maite dutie haurak maite dutienak. Hounki egiten baizik ezpaduzie hounki egiten, zer merechimentu duzie? Bekhatorek ere ber gaiza egiten die. Izpaduzie pperestatzen zerbaiten emaiteko ahaletan diener baizik, orano zer da zien merechimentia? Bena bekhatorek ere pherestatzen die, gero ber gaiza egiñik izan dakien eta. Izpalinbaduzie agourra emaiten zien anaier baizik, zer egiten duzie bestek beno haboro? Paganoek ere hori berbera eztieia egiten?

Arren zien etsaiak ere maitha itzatzie, egizie hounki eta pheresta deusere ordari eguruki gabe, ordian egiazki zien saria handi dateke. Ordian Jaungoikouaren semiak zirateke zoiñen hountarzuna hedatzen beita esker gabe eta gaistouetara ere.

Izan ziteie arren bihotzpera edo miseri-Kordious, zien Aita bihotzpera den bezala, izan ziteie perfeit zien Aita zelukoua perfeit den bezala.

1.– Pharisauek Legia faltsutzen zien, erran erazten beitzeien behar zirela adiskidiak maithatu, etsaiak hastiatu, gaizkia gaizkiaz phakatu.

2.– Salbazaliaren erakaspenetan badira manu elibat bekhatiaren piau bethe behar direnak eta aholku elibat ezinago hounak gizona perfeit egiten ahal dienak bena ere bekhaturik gabe saihetsialat uzten ahal direnak. Arren haizu da oldartze indarrezko bati indarrez bukurtzia, bena hatik ezta dudarik hobe lizatekiala hortan ere goure Buruzagi dibinouaren aholkier jarraikitzia.

Goure eginbiden ezagutzeko Jesusek eman deikun erregla houna da nourk bere buriari galthatzia noula bestez nahi lizatekian izan trataturik, hala hala besten tratatzeko.

3. – Eztezagun ouste ukhen mundu hountan gireno sekula aski perfeit girela. Jinkoua da begien aitzinian bethi etcheki behar dugun moudela. Erranik

~~II. Umiltarzunaz. S. Math. VI.~~

izan da Khiristitarzuna beithan direla behar diren legiak jente bakhotcharen perfeit egiteko, bena eztela lege hetan behar den indarra jente molthouaren edo zozietatiaren hountzeko. Hola mintzo direnek ahazten die zozietatiaren perfeit izatia jiten dela bakhotcharen perfetzionetik, populu batek badiala bethi merechi dian Gobernia eta Gobernu Khiristiak behar lukiala eskupian populu Khiristia ountsaren egitera haren erazteko. Ala perfeit eta irous beilizate zozietate bat, Jesusek bortun

gainen eman aholku hounak jarraiki balitza!

H. - Umiltarzunaz. - S. Math., VI.

Begira zitzii gizonen aitzinian zien obra hounen egitetik, haiez ikhousirik izateko; ezi bestela ezturzie saririk ukhenen zien Aita zelukoua ganik.

Eta orren, amouina eguiten duzienian, ez oihusta, ✗ zinagogetan eta kharriketan ipokritek eguiten dien bezala, gizonez ouhouraturik izateko. Ezi egiaz errairen deizuet: beren saria ukhenik dira.

Amouina eguiten duzienian, zien esku eskerrak jakin eztezala eskuiñak zer emaiten dian, zien amouina gorderik egon dadila, eta zien Aita zelukoak, gaizarik gordenak ikhousten dutian harek, sari houn bat emanen deizie.

1. — Goure obren egitian eztezagun tcherkha goure burien goratzia, bena Jinkoari ouhore eta atsegin emaitia: haren ganik ukhenen dugu saria. Izta hatik egitate houna osoki gorde behar,

zeren eta zor beitugu lagunari etsenplu hounaren emaitia, ber gaizaren hari egin erazteko. Dezagun arren gogouan ukhen berbera Jinkouari plazer egitia eta goure obra houner zeliaren irabazteko balio emaitia.

I. – Othoitzia; Goure Aita.

Hala hala othoitzian ari zidenian, ez egin ipokritek bezala. Halakouak ari dira othoitzian sinagogetan eta kharrika bazterretan, chutik dagotzalarik, gizonez ikhousirik izateko. Egiaz erraiten deiziet bere saria ukhenik dirade.

Bena ziek, othoitze egiteko, sar ziteie zien gelan edo khanberan, eta, bortha zerraturik, othoi ezazie zien Aita, gorderik; zien Aitak gaizarik gordenak ikhousten tialakoz, zientzat houn handienak emanen deitzie.

Othoitzian aritzian, ez paganouek bezala elhe hanits erran, halakouer uduri zaie luzazago othoitze egin eta segurkiago entzunik diratekiala. Ez haiek

bezala eguin, ezi zien Aitak badaki zeren
beharra duzien bai eta ziek galthoua egin beno lehen.
Houna arren noula othoitze eginen duzien:
Goure Aita zelietan zirena erabil bedi saintuki
zoure izena, Zoure Erresouma jin bekigu. Zoure
boronthatia egin bedi zelian bezala lurrian. Iguzu
egun goure eguneko ogia hazkuri ororen gañetik
dena. Pharka itzagutzu goure ogenak hala noula
guk pharkhatzen beitutugu goure ogen egiler,
eta ezkitzatzula utzi tentazionetan erortera, bena
begira gitzatzu gaitz orotarik. – Halabiz.
Ezi bere ogenak lagunari pharkatzen batuzie,
zien Aita zlukouak ere pharkatuko deitzie zien
bekhatiak. Bena ezpaduzie pharkatzen lagunari
zien aita zelukouak ere ezteitzie pharkhatuko zien
bekhatiak.

1- Zer ere eguinik beita urgulluz, eta noiur bere
buriaren agertzeko ezta ounhetsirik izaten ahal
Jinkouaz. Baliz ere egitaterik hoberena Jinkouaz
saihetsialat uztia lizate. Jinkouak maite diana
da bihotzeko aphaltarzuna, hartakoz ere
umilak altchatzen tu eta hen obrak bere chediala
helerazten.

2 Jinkouak hobeki entzuten du othoitze garsu bat
eziez othoitze luze bat. Paganouek ohi zien othoitze
luzerik egitia, bena izpirituz eta bihotzez laguntu gabe
3- Othoitziaren houn egiteko disposizionerik hoberena
da eskale eta erroumes eli bat girelako segurantza.
Othoitziaren egitian behar dugu ezagutu goure
esdeutarzuna eta Jinkouaren jabegoua soberanoua
eta gero hartan gain utzi guk behar dugunaren
ikhoustia eta emaitia.
4- Horra zozietatiari daukan Ebanjelioko egietarik bat.
Gouri erakoustez Jinkoua dela ororen Aita, J. Kristek
hartzaz beraz erakousten deiku algarren artian
aurhide girela, bata bestia bezaimbeste girela, eta
bata bestiarentzat houn eta justo izan behar dugula.
5. Hitz horrez galthatzen dugu Jinkouari ez berbera
khorphitzeko hazkurria bena orano arimakoua, erran
nahi beita grazia eta khorphitz saintia.
6 Othoitze hori deitzen da Jaunaren othoitzia, zeren
den J. Krist goure nausiaz egina. "Goure Aitaren"
zazpi-galthouetan edireiten dira Jinko Aita
zelukouaren gloriatako, goure, eta goure potsimo
lagunaren irous egiteko houn direnak oro;
ezi gihaurentzat galthatzen duguna, galthatzen

ere dugu goure lagunentzat.

7. "Goure Aitaren" bostgerren galthouan J. Kristek berheziki ezaguterazten deiku zoumbat Jinkouak hugu tian bester pharkhatzen eztakienak, eta mendekanchazko nahiak bere beitan begiratzen tienak.

J Baroura

Nouiz eta ere barour egiten beituzie ez erakouts ipokritek bezala begitharte ulhun bat, ezi begitharte gaitzian agertzen dira-gizoner ezaguterazteko barourez bizi direla. Egiaz erraiten deiziet bere saria ukenik dirade. Ziek barour egiten duzienian unkenta ezarie zien buria eta chaha zien begithartia /amorekatik eta zien baroura ezaguturik eztadien izan gizonez, bena berbera zien Aita Khantian gorderik dagoenaz, eta zien Aita gordian ikhousten dianak behar dena utzuliko deizie.

1. Ezta galthaturik nourk goure buriaren egiazki unkentalzia, ez hori mintzatzeko maneria bat da gouri erakousteko behar tugula begitharte argi bateki penitentziak egin eta ihouri urgulluz agertu gabe

K - Egiazko Hountarsunak

Ez tcherka hountarzun athetzia lurrian./ noun erdoillak eta harrek jaten ahal beitutie, bai eta

ouhouñek edireiten eta eramaiten. Athe ezazie
hountarzun zelian noun erdoillak eta harrek ezpeitutie jaten,
noun ouhouñek ezpeitutie edireiten ez ebasten. Ezi
noun ere beita zoure hountarzuna han da ere
zoure bihotza.
Zoure Khorpitzaren argia begia da 2/ Zoure begia
chahu bada, zoure Khorpitza oro argitia date. Bena
zoure begia gaistoua bada zoure Khorpitza oro
beltza date. Zoure beithan den argia arren ulhumpetzen
bada, ulhumpiak berak zer dirade?
1- Lurra beno haboro maite bagunu zelia, gutiago
estimu gunuke Lurreko hountarzunentzat ezier
bertutiarentzat.
2- Begiak erabilten du Khorpitza; begia houn bada
erriskietarik hurrundago Khorpitza; gidari houna
da fediaren argia. Ouste badugu mundu hountara
jinik girela hountarzun biltzeko, jakitate handirik
ukheiteko, edo deskantsu eta atsegin hartzeko,
ulhumpetan bizi gira, eta erori handienak
egin ditzogu :- Aldiz ouste badugu ertugula
bizi hau ukhen zeliaren irabazteko baizik,
ordian goure fediak emanen deiku bihotz bat
sekula deskorajatuco ezteua, eta hartzaz beraz

jaükituko tiena.

I. - Probidentziari bere buriaren emaitia Thourkere eztio zerbutcha bi Buruzagi 1) ezi edo bata hugu ukhenen du eta bestia maite, edo estekiko da batari, eta bestia gutiessiko dugu. Eztuzie zerbuchatzen ahal ber demboran Jesus eta Mammon erran nahi beita diharia. Hartakoz erraiten deiziet: Etziteiela arrankura bitzitzeko zer jatera ukhenen duzien, ez ziren khorphitzen gordatzeko zer arropa dukezien 2) Bizia ezteia jatekoua beno haboro, eta khorphitza souñekoua beno baliousago? So egizie zeluko chorier: eztie ereiten, eztie urtatzen, ez eta graneretat athetzen, eta zien aita Zelukouak hartentu, eta ziek etzideia hourak beno hanitsez haboro? Zoumbat nahi zien izpiritia lanian aritzen ahal da, bena halerik ere ahal duzieia beso bater ere zien handigoa emendatzen? Eta orano souñekouaz zertako arankura? Asma itzatzie lurreko liliak noula handitzen dien, eta hatik eztie ez uruten, ez beste lanik egiten. Erraiten deiziet Salomoun bere alchadura edo gloria handian eztela izan hetarik bat bezala beztiturik. Eta arren Jinkouak holachek beztitzen badu alhorretako lili bat,

egun dena, eta bihar suialat ourthoukkia datekiena,
zoumbatenaz, ō sinheste gutiko gizonak, eztu zietzar
artha edo kasu haboro hartuko? Ez arren
beldurik ukhen, ez eta ere erran: Zer janen dugu?
Zer edanen? edo zer souñeko dukegu?. Bede
Paganouak gaiza horiez arrankura hartzera.
Ziek aldiz ohart zien Aitak badakila horiek
oro eskas tuziela. Cherkha ezazie arren lehenik
zeluko Erresouma eta hartarat eramaiten ahal
dian justizia. 4) eta arrastako gaizak gaintika
emanik izanen zaitzie. Ez iran inkiet jiteko den
egunaz, ezi horrek ere berartzar artha hartuko du.
Egun bakotchak aski du bere gaitza

1- Jesus eta Diharia, bi buruzagi dira algarren
etsai. Dihariaren estekementiak eginartey
du hanits gaiza behar elizatekinik. Bizio
horek ekharten du gizona bai eta ere bestenarey
hartzera, bere buriarey aberats ikhoustiagatik
Mamoy zey Phenizian dihararey Jinkoua

2 Behar da lanian ari biziarentzat houy dien
gaizey bilhatzeko bena ez sobera bihotzterzieki
zerey Jinko zelukoua gouri beha dey, eta
dey kreaturarik tchipiena eztiey saihetsilat
ustey

Jinkouaren lagungouaren ukheiteko behar da ere
othoitzia usu egun oroz pratikatu bai eta horen
Legiari arrahenki jarraiki. Arren herramentu
handia da, Frantziak egun egin nahi lukian
bezala zozietate baten ordratzia Jinkoaz ohitu
gabe, eta guero Jinkouak bere beneditzioniak
hartara heda ditzen egurukitia. Zertako langiliak
eztu hanits aldiz atsemaiten noun lanian ari
zertako erroumesa hiltzera da gossez milionnaiden
Khantian zeren eta ezpeitugu Jinkouaren Legia
behar bezala ezagutu ez jarraiki. Zer
abantailla eluke arren langiliak errelijioniaren
erakouspenen gizon orotara hedaeraztez!
3 Paganouak zizen ordunkorik, Judio populiaz
bestiak oro, egun aldiz Jinko faltsien
adorazaliak deitzen tugu izen horrez
4 Cherkha dezagun bethi zerk ere egiten ahal
beikutu justo eta perfeit; lehen lehenik egin
ditzagun Jinkouak manhatiak, eta munduko
gaizak, hala noula jatekoua, edatekoua, bakia
emanik izanen zaisku sari houn bat bezala
Hola izanen da gutarik bakotcharentzat bena
ezta ere besta gisaz izanen familientzat eta

nazionentzat. Populien ountza edo gaizki jouraitia ezteite atzeman zinkouaren ountza edo gaizki zerbutchatzian baizik.

M. Eztela behar gaizki jujatu

Ez juja zihauriek etziteien jujaturik izan Ezi noula ere jujatuko beituzie hala jujaturik izanen zideie; eta zer ere izari eginen beituzie bester houra bera eginik izanen zaizie. Zertako zoure anaiaren begian ikhousten duzu lastoua eta ez pitralia zihaurenian.

1) Edo bestela noula eraiten ahal derozu zoure anaiari: Uhz nezak hire begitik lastouaren jelkitzera nouiz eta zihauren begian ediren beitiokezu pitrale bat. Ipokrita, jelk ezazu lehenik zihauren begitik pitralia eta ordian egin ahal diokezu zoure anaiaren begitik lastouaren jelkitia

N. Prudent izatia

Eztitzatziela eman chakurrer gaiza sakratiak, ez eta era ourthouki zien perlak borthakouer belduzez zankho petan erabil ditzen, eta gero zihaurier buruz jarten dirdarik phorroko zitzen

1) Ez mintza Errelijioneko gaiza sakratiez

hetzaz guti estimu ukhey nahi diener, ez
eta ere ezar gaiza sakratu hetzaz tzarki
mintzatzeko heñetay nour ere beitira gaizki
ekharririk hey alderat.

O Othoitziarrey indarra

Galtha ezazie, eta emanik izaney zaizie;
Cherkha ezazie eta edireney duzie; jo ezazie
eta zabalturik izaney zaizie 1) Ezi galthatzey
dianak ukheitey du, cherkhatzey dianak
edireitey du, eta joitey dianari zabalturik zaio
Badeia ziey artiay gizoy bat aski gogor
ogi phouska bat galthatzey deioy semiari, harri
batey eskentzeko? Eta galthatzey badeio arrain
bat eskentuko othe deiona suge bat?
Eta arrey, ziek gaisto izana gatik, balimbadakizie
gaiza hounik emaitey ziey haürrer, zoumbatenaz
haboro ziey aita zeliay denak eztu emaney
gaiza hounik galthatzey deioner?
Zer ere arrey nahi beituzie gizonek egin
dizaziey, houra bera haier egin izezie
ezi hortay zerratzey dia Legia eta Profetey erranak
1 - Othoitzak holatay indar handia du. Zertako
indar horrez ez balia gihaüren eta besterentzat?

2. Egin dezagun besterentzat, zer ere nahi beikunuke egin gihaurentzat. Jinkouat saristatuko gutu beir gaiza egitez gouretzat

Bortha hersiaz

Bortha hersitik sar zitie: Eci bortha lazoa da eta zabala bide galgarrietara emaiten diana eta saldo handia da hortarik sartzen. ala dela aphal bortha, eta herzi bidia bizitze eternaliala gidatzen diana! eta zoin gutik houa edireiten.

P.

Begira ziteie Profeta faltsietarik zirengana heltu direnak ardiaren itchuraz unguraturik, fountsian eztira otso atzamankor elibat baizik

1) Bere ekhoitzpenetarik ezagutuko tuzie Khaparretan sekula bildu deia mahatsik? edo ere phikorik elhorrietan. Zuhain hornak emaiten du frutu hounik, bena era zuhain gaistouak eztu emaiten frutu gaistorik baizik. Zuhain houn batek eztio eman frutu gaistorik, ez eta ere zuhain gaisto batek frutu hounik. Aldiz zuhain frutu hounik ekharten eztieena mouzturik eta suialat ourthoukirik dateke.

2) Ezagutuko tuzie arren beren frutietarrik

Eta orano Koumparantza hau emaiten ziay: Utsu
batek ahal dioua utsu bat gida? Ezticia
biak eroriko arroillalat? Bere bihotzaren tresor
hounetik gizoyak hounkia jelkitzen du, bere
bihotzaren tresor gaistotik gaizkia: ezi bihotzeko
bethaduratik ahoua mintzo da.

1 Profeta faltsiak dirade leheneko Erretikouak,
oraiko Errelijione gabiak, beste lanik eztieuak
simplen eta iñoranten atzemaitia baizik bere elhez
eta gezurrez. Zoumbatek eztie iseiatzen populiari
sinhetseraztia baizik ere Errelijioniak diela
ephantchatzen irous izatetik, baizik ere hambatenaz
aisianago datekiela zoumbatenaz ere hobeki gerla
eginen beitu Jinkouari eta harin ministrouer.
Bena ere zer heltzen zaia? gerouago eta
handiagoko miserietara erorten da, zeren ezten
ountza izaterik Jinkouatan baizik. Horra
profeta falsien frutiak.

2 Ezta aski gaizkitik hurrun egoitia; behar da
orano ountza egin. Zoumbat nahi erraiten ahal
dukegu ezteogula gaizkirik egin lagunari, halerik
ere Jinkouaz gaztigaturik izanen gira eta suialat
emanik zuhain gaiztoua bezala ezpadugu zerbait

egin haren urgaitzteko eta hari salbamentiaren aisatzeko.

P. Obra hounen balio handia

Jauna Jauna erraiten deitadanak oro eztira zeluko Erresouman sarthuko, bena berbera zelietan den aitaren nahia egiten diana, houra da sarthuko zeluko Erresouman. Zertako arren deitzen naizie: Jauna! Jauna! ezpaduzie egiten nik nahi dudana? Hanitsek azken egunian erranen deitade: Jauna! Jauna! Ez othe dugia, zoure izenian guero jin beharra, aitzinetik ezaguterazi, zoure izenian debriak ohiltu, zoure izenian mirakuillu hanisko egin? 1) Eta nik goratik erranen deiet: Etzutiet egundano ezagutu, hurrunt zitzie niganik tzarkeria edo inikistatze egiliak.

Erranen ere badeiziet nour uduri den ene gana jiten dena, ene elhiak behatzen tiana eta her jarraikitzen Harrek uduri du gizon zuhur bat etche baten eraikitzera abiatzen dena. Barna zilatzen tu foundamenak eta harri biziaren gañen phausatzen etchia. 2) Eta ordian jin dira ebite handiak, erori dira etchen gaña. uharriak bena eztie khordokatu ahal ukhen. Bai ebia erori da nassaiki, uhaitzak bere ohetarik jelki dira,

aiziak indarreki bonhatu du, bena etchia ezta erori
zeren zen harri biziaren gañen emanik.
Aldiz ene elhiak entzun eta saihetzialat eizten tienek
uduri die gizon erho houra zoiñek bere etchia
eraiki beitu hariñan edo lur mardouan sola
segurrik gabe 3) gero ebia erori da uhaitzat
bere ohetarik gaintitu dira; aïsek lazki indar egin
die etchia erori da eta han da lurrian zabal zabala
Jesusek akabi zianian jente ostiari elhe horien erraitia,
populia haren erakouspenen entzutez choratia zen, bena
ere erakasten ari zeien autoritatereki eta ez Eskribak
eta Pharisienak bezala
1 Ezta aski othoitze egitia; baguntu ere obratu
mirakuillurik handienak, ezkinate salbaturik ezpaguntu
egin jinkouaren nahiak. Hola denaz gañen zer
gogouetak eztutie egin behar persouna bere ouztez ounest
eta debot dienek. Halako zoumbaitek ountsa behatzen tie
bai debozionezko eginbidiak, bena bere estatukouak
malerouski saihetsialat uzten, miserikordiasko obrentzat
bere hountarsunetarik guti emaiten, bere haurrez, languilez
eta sehiez guti arrankuratzen, bere lankhietan eta
bilkhurretan sobera libertate emaiten eta holaz bere
ezkupekouen arimak galtzeko lanjerian ezarten

Eta hatik Joundane Paüley erranetik: Nourk ere ezpeitu etchenkouez, eta berheziki sehiez artha hartzey harek Jinkouari ukho egiten du, eta houra Pagano bat beno aphalago jarten da.

2. Goure bertutia eta saintutarzuna aiphatu etchiari komparaturik dira. Arima harek soilki azkarki bastitzen du zoinek ere cherkhatzen beitu ahalaz Jinkouaren nahiaren egitia, eta egin bide oroen bethatzia, zoumbat nahi behar den goure naturabarari bortcha egin.

3 Egiazko bizitze kiristia da Jinkouaren eta Elizaren maniak begiraturik dienian; bestelan uduri du etche bat eraikia dena foundamenik gabe, eta hanits dembora gabe lurrian detekiena.

Ehuntarria

IX - Centuriona edo ehun gizoin manhazale kapitaña

St Mathieu VIII, 5-17; St Luc VII, 1-10

Jesus eratchi zenian bortutik, segiturik izan zen jente moltzo handi batez, eta sarthu zen Capharnaü-en. Han zagouen Centurion bat bere sehik maitena eri ziena, hilzeko menian 1) Entzunik zoumbat aiphu zen Jesusez igorten deitzo Judiouetarik zahar zoumbait galthatzera jin lekion bere zerbutchariaren sendotzera. Janna,

zeion erranazi, ene zerbutcharia paralisiak harturik
da, hochian eta hanits nekatzen da. Mezulariak
heltu ziena bai Jesusen gana hersiki othoitu zien
jin ledin ezi zioien: Merechi du gaiza hori eginik
izan dakion, etcheki da goure jentazari eta eraiki
deiku sinagoga bat goure bilkhurentzat.
Jesusek erran zeien: Jouanen niz eta sendotuko dut
Bazouen arren Jesus hekin eta noula etchila
huillantiak beitzien, Centurionak igorri zeitzon
bere adiskide elibat erraitea: Jauna etzitiela sobera
neka, ezi enuzu digno ene egatzpian sa zitian.
Hartakoz ere eztit ene buria aski heñetan atzeman
zoure gana agertzeko. Bena errazu hitz bat bera
eta ene zerbutcharia sendo dukezu
2) Ezi nik ere, besten eskupeko nizalarik, ene
aldian manhatzen dut soldato zoumbaiti, eta erraiten
dut batari: Abiloua eta jouraiten da; beste bati:
Aigu eta jiten da; ene zerbutchariari aldiz:
Eginezak hau eta egiten du. Gaiza hoien entzuten
Jesus espantaturik zen, eta utzultzen delarik, ondotik
heltu zaion jente ostiari buruz, erraiten du: Egiazki
deiziet erraiten, eztudala Israelen hoimbesteko sinheste
bat ediren. Hartakoz ere ezteiziet gordeko jinen

divela hanits bai Ekhi jelkhigiatik bai Ekhisargiatik
jarriko dienak Abraham, Isaac eta Jacoben aldian
zeluko Erresouman, aldiz erregouman sorthu haurrak
ourthoukirrik izanen divela Kampoko ulhumpetarat
noun beitiate nigarrak eta hortz Karraskak.
4) Jesusek erran zeion Centurionari: Abil eta
eginik izan dakiala hire sinhestiarren arabera. Ber
orenian zerbutcharria sendoturik izan zen, eta Centurionak
igorri gizonak etchea heltziareki atzeman zien ezi
izan zena ountza ekharten zela.
1 Zer etsemplia gouretzat zerbutcharien artha hartzeko
Erroumanes armadako geihien bat zen, ehun gizoni
manhatzen ziana, eta sortzez paganoa bena
haren egitatia zoumbait Kiristiri buriaren aphalaztekouetarik
zen
2 Centurionaren fediak eztu parerik haren umilitatia
baizik. ezi dio: Nik gizon simple bat, ofizier
aphal bat izana gatik manhatzen ahal badut
eta ene mania eginazten ene aldepeko elibati
zombatenaz haboro zuk Jinkonaren semia eztuzu
manhatzen ahal, eta mania eginazten naturaleza
guziari, ossagariari eta biziari, eritarzunari
eta hiltziari

3 Judionen oustia zen Messia etzela jinen heutzat
baizik. Jesusek nahi de sinheste hore galerazi
erakoustez populiak gainti orotarik jinen direla
Errelijione berri Abrahami eta Patriarker hitzemanaren
bessarkatzera

4 Judionek behar zukien lehen lehenik izan Salbazaliaren
jitiaz baliazaretarik. Ezta hala izan, ere bere faltaz
galdurik dirateke. Heben aiphatu sofritzeko lekhia
Ifernia da

X Naim-eko Alharguntza - St Luc VII 11-17.

Gerthaldi horietarik landa, Jesus jouraiten zen
Naim deitzen zen hiri batetara; dizipuliek laguntzen
zien eta hekin jentetze handi batek. Jadanik hiriko
borthetara zen nouiz eta hil bat igaraiten beita
hobialat eramaiten ziena. Hila alharguntza baten
seme bakotcha zen, eta ama gaichoua bazouan
ondotik herritar hanitchez laguntarik
Jesusek haren ikhoustiareki pietate hartzen du
eta erraiten deio: « Ez egin nigarrik. Gero
Khareazaliak ukhuratzen dielarik, Jesus huillantzen
da, hounkitzen du ~~eta~~ ~~erraiten~~ ~~deio~~. hutcha eta
erraiten: Gizon gastia nik manhatzen deiat,

jeiki hadi. Hilik zena jarri zen, mintzatzen hasi,
eta Jesusek bizirik eman zian bere amari.
Gaiza horien ikhousliak lazkura handi batek hartzen tu
eta hasten dira Jinkonak eginaren oihustatzen erranez:
Profeta handi bat jeiki da goure artian eta Jinkonak
gisa hounez ikhousi du goure populia. Egitate horren
berria Judea orotan hedatu zen bai eta ere khantuko
herrialdetan
Joundane Jouhaneri ere berri horik oro eraman
zeitzen bere dizipuliek.
1 Hiletarik phizte horrek uduriazten du Franziaren
arraphiztia. Franzia nazione bezala hilik da zeren
Jinkonari ukho egin dian. Bena Maria Jesusen Amak
haren phiztia gogonan hartu du, eta hartakoz hain
usu agertu zaio bai Parisen 1830in bai Salettan, bai
Lourdesen bai Pontmaien eta beste zoumbait lekhutan
Nöiz eta ere Franzia Jesusen ganat utzuliko beita
edo sinheste azkar bateki, dolumen egiasko bateki,
arra bizia bilhatuko du, arra Elizaren alhaba
lehena izanen da.
XI Joundane Jouhaneren mezia edo mezulerak.
St Mathieu XI, 1-16 St Luc VII. 18
Joundane Jouhanek bere gaztelian entzunik Jesus-Krizten

egitate handiak 1) deitbu zutian bere dizipulietarik
biga eta igorri zutian Jesusi galthatzera: « Zu zireia
jin behar diana, ala beste bat behar dugu eguruki?
Gizon hek arren heltu ondouan Jesusen gana, erran
zeien: Jouhane Batistak igorri gutu zouri erraitera
Zu zireia jin behar diana, ala beste bat eguruki
behar dugu? Ordu berian noula Jesusek sendotu
beitzutian jente andana bat gisa hanitsetako
eritarzunez, zauriz eta izpiritu gaistouetzaz hartiak
bai eta utsu zombaiti bista eman, erraiten deie hen
galthouari ihardesteko: Zouaste, eta erran ezozie
Jouhaneri zer entzun eta zer ikhousi duzien.
2) utziek ikhousten diela, chaimkiak ebilten diela,
lepradunak garbitiak diela, gorrek entzuten diela
hilak phizten diela, prauber Ebanjeliona pheredikatunik
dela, eta irous dela nourkere ezpeitu nitzaz eskandal
hartzen.
1 Joundane Jouhanek presountegian zelarik entzuten
zutian Jesusen mirakuilliak; boztarioz betherik zen
ikhoustez haren erranak agitzen ziela Jesus beithan.
Dizipuliak aldiz jelos beitzien Joundane Jouhanek
igorten tu beren begiz ikhous ditzen Jesusen indarrak
eta haren obra handiak.

2 Jouhanen beithan ikhousten ahal zen saintu handi bat
eta haren elhiaren indarrak populia hounkitzen zian,
bena etzeion heltu sekula mirakuillu baten egitia.
Jinkouak hala nahi zian, populiak elezan Salbazalia
eta haren aitzina anouzazalia bat bestiarentzat har
3 Jesusek Jinko delako borogaintcha emaiten du baizik
ere praubier Ebangeliona pheredikatzen diala; ordartino
eta orai ere Errelijione Katholikona heltu ezten
lekietan praubiak gututurik dira, ezklabo etchekirik
eta eztutie instruitu lotzaz zerbait hounune
galtha dezen
4 Badira Jesusez eskandalisatzen direnak eta haren
ganik hurruntzen zeren den praube, aphal eta ez
handikoi; halakouak zorigaitz oraz batkouaren
ondotik badabiltza.

XII Jesus-Kristek goresten du Joundane Jouhane
St Math. XI, 7-19 - St Luc VII 24 35

Dizipulu mezularek hurruntu ziena bai, Jesus
hasten da Jouhanez mintzatzen populiari eta erraiten
; Zeren ikhoustera izan zideie desertialat aiziak
harat hounat erabilten din kanabera baten? Bena
orano zeren ikhoustera jouran zideie? arropa mardo
eli batez bestiturik den gizon baten?

Ez arropa ederrez unguraturik dienak eta gizenki bizi dinenak erregen jauregietan dira. Zeren arren ikhoustera jouran zideie? Profeta baten? Bai erraiten deiziet eta Profeta beno handiago baten

1) Ikhousi duziena da zonintaz izkiribaturik beita Honna noun zoure begithartiaren aitzinian igorten dudan ene ainguria zoure aitzinian bidiaren adelatzera. Egiaz erraiten deiziet: emazten hauretan ezta agertu Joundane Batista beno profeta handiagorik. Eta hatik zeluko Erresouman gutienik dena orano houra beno handiago da.

2) Joundane Jouhane Batistaren demboratik eta honnat, zeluko Erresoumak bortchatia nahi du izan eta indarretako gizonak dira houra beretzen direnak.

3) Ezi Joundane Jouhane ager artino dutie Profetek eta Legiak ezaguterazi Jinkouaz hilzemanak Eta nahi baduzie ountza gogouan eman, houra da Elias bera, jin behar dena

4) Orai beharririk dienak entzuteko entzun dezala. Horiek entzunik populu guziak, eta Publicano Jouhaneren bateiaz garbiturik izan zirenek Jinkouari Laidorio eman zien. Bena Pharisan eta Legeko

Doktor bathein horez antsiarik ukhen etzienek
yutietsi zutien jinkouaren nahiak beren eretzian.
5) Erre Jesusek erran zian: Nouren uduriko erranen
dut direla dembora horietako gizonak, nou dira uduri?
Uduri die haür elibat plaza bethian jarririk direnak,
algarri mintzo direnak eta erraiten: Chiroula jo
deiziegu, eta etzideie dantzatu, aide dolorousik
khantatu deiziegu, eta eztuzie nigarrik egin.
